

## **XII. PROIEKTU DEIALDIA**

### **POLTSIKO ANTZERKI SORKUNTZA**

Donostia Kulturak, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen laguntzarekin, **Poltsiko Antzerkiaren alorrean euskarazko sorkuntza bultzatzeko hamabigarren PROIEKTU DEIALDIA** antolatu du.

Poltsiko Antzerkiaren, eta orokorrean, formatu txikiko antzerkiaren inguruan **euskarazko lanen eskaintza urria izan ohi da**. Hala, askotan Poltsiko Antzerkiko programatzaileek arazoak izan ohi dituzte euskarazko obrak programatzeko. Errealitate hori ikusita, alor horretan euskarazko sorkuntzak bultzatzea da ekimen honen lehen helburu nagusia.

Bestalde, **kulturaren balio katearen** barruan (trebakuntza; sorkuntza; ekoizpena eta, hedapena eta ikustaldia), orokorrean **sorkuntza eta ekoizpenak** dira kultur erakundeetan gutxien jorratzen diren arloak. **Kultur Etxeen** ataletik, oinarrizko eta gertutasunezko kulturaren bideratzaile diren aldetik, argi dute, badutela zer ikusi eta zer egin **formatu txikiko sorkuntzen sustapenean**. Hala, ekimen hau sorkuntzaren eremuan egingo den lanaren **hastapena** izatea espero dute, aurrerantzean kulturaren beste arlo eta diziplinetara hedatu ahal izateko. Gauzak honela, kultur balio katearen ibilbide guztia jorratzea da bigarren helburu nagusia.

2011n abiatu zen lehen aldiz modu esperimentalean *Proiektu deialdi* hau, Euskal Kultur Erakundearekin izandako esperientzien elkartrukearen ondotik. **Aurreko hamaika deialdietan 79tik gora izan dira aurkeztutako Poltsiko Antzerki proiektuak.**

Kontuan hartzekoa da, era berean, **hamabigarren deialdi** honen xedea ez dela saritzea soilik, **koprodukzioa** baizik. Izan ere, aukeratutako bi proiektuen sorkuntza eta ekoizpena laguntzeaz gain, hamargarren deialdi honetan landutako bi obren estrainaldia egingo da hurrengo **Poltsiko Antzerkia Jaialdiaren** programazioaren. Modu honetan, euskal antzerki sorkuntzari leiho bat ireki nahi diogu jaialdiaren barruan. Hain zuzen ere aukeratutako bi antzezlanen **4 emanaldi** egingo dira hiriko auzoetako **taberna ezberdinetan**.

Ekimen hau aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da erakunde publikoa eta elkarte-hiritarren arteko **elkarlana**, egitasmoaren eraginkortasuna benetan bermatu nahi bada. Hala, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuarekin batera landutako proiektua da.

Proiektu deialdi honen informazio guztia (oinarriak, baldintzak eta abar), Donostia Kulturako Web orrian dituzue.

[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)